

# MARTZILLAKO I. XAKE TORNEO IREKIA

## (2021eko abuztuaren 21ean)

### **Data:**

2021eko abuztuaren 21ean.

### **Partiden ordutegia:**

10:00: Lehenengo txanda.  
10:30: Bigarren txanda.  
11:00: Hirugarren txanda.  
11:30: Laugarren txanda.  
12:00: Bosgarren txanda.  
12:30: Seigarren txanda.  
13:00: Zazpigarren txanda.

13:30: Sarien banaketa eta otamena.

### **Tokia:**

Martzillako Gaztelua.

**Plaza mugatuak:** 80 kirolari.

### **Covid-aren aurkako neurriak:**

Beharrezko neurriak hartuko dira eta protokoloa Nafarroako Xake Federakundearen webgunean argitaratuko da ("[www.fnajedrez.com](http://www.fnajedrez.com)").

### **Izen ematea:**

Nafarroako Xake Federakundearen posta elektronikoa: "[info@fnajedrez.com](mailto:info@fnajedrez.com)".

Izena emateko epea 2021eko abuztuaren 19ko 14:00etan amaituko da. Osteguna da.

Epez kanpo ez da jokalaririk onartuko.

### **Prezioak:**

18 urtez gorako federatu eta bertako jokalarientzat: 10 euro.

18 urtez beherako federatu eta bertako jokalarientzat: 5 euro.

18 urtez gorako jokalarientzat, federatuta ez badaude: 15 euro.

18 urtez beherako jokalarientzat, federatuta ez badaude: 10 euro.

Izena emateko epea amaitu baino lehen ordaindu beharra dago.

Epean ordaindu ez duena kanporatuta gera daiteke.

**Joko sistema:**

Suitzarra, 7 txandatan.

10 minutu izanen dira partida osorako. Denbora gehigarririk gabe, parte hartzaile kopuruak bestelakorik gomendatzen ez badu.

**Parekaketak:**

FIDEk homologatutako Vega programa informatikoaren bidez egingen dira eta "[www.info64.org](http://www.info64.org)" webgunean argitaratuko dira.

**Kortesiako denbora eta jokalaria kanporatzea:**

10 minutu berandu iritsiz gero partida galduko da eta jokalaria ez agertutzat hartuko da. Ez agertze hori arrazoitzen ez badu, automatikoki kanporatua izanen da jokalaria.

**Apelazio Batzordea:**

Bost kide izanen ditu (3 titular eta 2 ordezeko). Epailen taldeak izendatuko ditu, Torneoko Zuzendaritzarekin hitz egin ondoren. Ezin zaio postuari ukorik egin. Erreklamazioak idatziz egingen dira, epaile nagusiaren bidez, Apelazio Batzordera zuzenduak. Beranduenez jota, gertakaria izan eta 5 minutura. Batzordearen erabakia ezin izanen da errekurritu; beraz, behin betikoa izanen da.

**Ezberdinketa sistemak, orden honetan:**

Jokalarien arteko emaitza.

Bucholz- 1.

Bucholz.

Sonnenborn-Berger.

Metatzailea.

**Sariak:**

Lehenengoarentzat: 200 euro eta trofeoa.

Bigarrenarentzat: 150 euro eta trofeoa.

Hirugarrenarentzat: 75 euro eta trofeoa.

Lehenengo emakumearentzat: 75 euro eta trofeoa.

Eloko 1.800etik beherako lehenengoarentzat: 75 euro eta trofeoa.

18 urtez azpiko lehenengoarentzat: Liburu sorta.

14 urtez azpiko lehenengoarentzat: Liburu sorta.

10 urtez azpiko lehenengoarentzat: Liburu sorta.

Sariak ezin dira metatu. Sariak zatitzerik ere ez.

**Beste batzuk:**

Torneo honek III. Araua aplikatuko du: "Denbora gehigarrik ez duten partidak, erortzeko bandera dutenak". 5. artikulua, hain zuzen ere.

FIDEn arauak eta Torneo honen oinarriak onartzen dituzte jokalariek.

Oinarri hauek alda daitezke, torneo hobetzeko. Aldaketak web ofizialean argitaratuko dira.

Datu pertsonalak komunikabideetan argitaratzea onartzen dute jokalariek, lehiaketaren berri emateko (emaitzak, sailkapenak, parte hartzaileen zerrendak, partidak eta prentsarako kronikak). Baita torneoaren webgune ofizialean eta informazioa bidaliko den bestelako webguneetan ere.

**Antolatzaileak:**

Martzillako Udala eta Nafarroako Xake Federakundea.

**2021-08-10.**

**Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.**